

De

editoriala

HEZKUNTZAREN KALITATE-LEGEA. BI IKUSMOLDE.

- CONCAPA-NAVARRA FEDERAZIOA.

CONCAPA NAVARRAK irimotasunez uste du ezen Kalitate Lege berriak gure herriko irakaskuntza hobetuko duela, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza zehazki, eta gure seme-alabentzat nahi ditugun haien giza baloreetako heziketa bereziki, haiek pertsona ikasiak eta gizaki banaka eta gizartearen askeak eta arduradunak izan daitezen.

Une hau oso garrantzitsua da eta honakook lortzeko aprobetxatu behar da: hezkuntza-sistema benetan modernotzea, sare publikoaren eta itunpekoaren arteko berdintasuna eta osagarritasuna eta, azken batean, hezkuntza arlo osoak Europako Erkidegoan eta mundu gero eta globalagoan dagoen goranzko lehiakortasunari aurre egiteko moduko kalitatezko hezkuntza lortzeko ahaleginak egitea.

Espainia segmentatzea saihesteko unea ere bada, Hezkuntza lehenengo edo bigarren mailako Autonomia Erkidegotan banatu behar ez baila. Horretarako, anbiguitasunik gabe egin behar dugu, egun, haur-hezkuntzaren doakotasunaren alde eta, etorkizunean, hezkuntza osoaren alde. Hezkuntza hori espainiarrek orok askatasunez atzitzen ahal duten herri zerbitzu anitz-tzat hartu behar dugu. Irimotasunez baztertu behar da edonolako bazterkeria, ekonomia, arraza, sexu edo erlijio zioengatikoa.

CONCAPAren iritziz, hezkuntza-eraldaketa behar-beharrezkoa eta presa-presazkoa zen. Ezinbertzekoa zen zati-tzeko arriskutan zegoen hezkuntza-sisteman gutxieneko edukiak finkatzea. Hori iritsi nahi zen Gutxieneko Irakaskuntzen Eraldaketa delakoaren bitartez. Izan ere,

gure hezkuntza-sistemak ez dezake gure ikasleen eskolako porrot-indize altua jasaten jarrai.

Legeak derrigorrezko hezkuntza mailak ukiturik ditu eta HSAGOL Legeak barnean harturik zuen ulerkortasun-eredua berrikusi du. Promozio automatikoa desagertzea bezalako alderdiak azpimarratu nahi ditu. Hori zen HSAGOL Legearen arazo nagusietako bat. Egin-eginean, lege horrekin bat etorritik, ikasleak ikasmaitatik hiru edo lau irakasgai gaingitu gabe pasatzen ahal ziren eta, horrela, hezkuntza-sisteman zabarkeriaz lozorroturik egoten. Eredu txarrak ziren ikasle arduradunentzat.

HSAGOL doitzeko unea heldu da, haren akatsak zuzendu eta haren alderdi batzuk indartzeko. Horretarako, Espainiako Batxilergoa indartu behar da, Europako ahul eta laburrenetakoa baita, eta, era berean, beharrezkoa da edukiak tinkotasunez ezarrita dituen Bigarren Irakaskuntza izatea. Ilde horretatik, Humanitateen Dekretua eta antzeko ekimenak ikasturte honetan bideratu beharko dira, ikastetxe publiko eta pribatuaren pedagogi, antolakuntza, akademi eta kudeaketa lokabetasunak eta bertze neurri batzuek lagunduta. Atxikitako ikastetxeetako ikasleen jarraikortasuna ezarri behar da, ikastetxearen egungo eskariaren edo eskari potentzialaren arabera "eguneratu beharra" izateko irizpidea definitu behar delarik. Ikastetxeko zuzendariaren eta maisuaren figuren agintaritza leheneratu behar da.

Oraindik ez zaio kasurik egin itunpeko ikastetxeetako eskola-plazei begirako eskariari. Eskola-atil berriak adjudikatzeko sistema bat ezarri behar da, eskariak hori eskatzen duenean, hezkuntza-administrazioen gogoaren menpean beti egon gabe.

Halaber, eraldaketak ez ditu konpondu itunpeko ikastetxeen finantzaketa-arazoak. Izan ere, ekonomia ituneko moduluak ez zaizkie finkatu. Eskola-postuaren benetako kostua kontutan hartu behar da. Arriskutan da ikastetxe anitzen ekonomia bideragarritasuna. Ikastetxeotara jotzen duten gurasoek jasaten dute haien ekonomia mentea.

Ibilbideei dagokienez, koherente eta egoki deritzogu DBHko bigarren zikloko ikasleentzat hiru ibilbideak sartzeari, eta,

eskolara

Editoriala

logikoa denez, Batxilergoaren amaierako ezinbertzeko azterketari. Izan ere, horrela, ikasleen ezagupenak aztertu eta herririk garatuenetakoekin homologatzen ahalko ditugu enpleguak gero eta profil nazioartekoagoak hartzen dituen mundu honetan. Hala ere, azterketa edo proba horrek ez du ikaslearen etorkizuna behin betiko oztopatu behar. Ildo horretatik, CONCAPAkoon iritziz, Batxilergoko proba orokorra gaunditzen badute ere, ikasleek etapa horretan eginitako ikasketen ziurtagiria lortzeko aukera izan behar dute. Bertzela, arazo larriak izan ditzakete lan-mundura sartzeko BPO gaunditzen ez duten ikasleek.

Legeak ikastetxeen eskola-kontseiluen eginkizunak oso aldatzea dakar. Haiek erakunde aholkulariak izanen dira, ikastetxeak kontrolatzeko eta gobernatzeko erakunde betearazlea izan beharrean. Zuzendariaren figura indartu da ikastetxearen benetako kudeatzaile gisa. CONCAPAkoon ustez, aldageta ona da, baina zuzendariaren hautaketak Hezkuntza Erkidegoaren babesa izan beharko luke. Izan ere, Hezkuntza Administrazioak ez du ezarri behar ikastetxeak ongi ibiltzeko funtsezko figurarik.

Laburbiltzeko, azkenik, azpimarratu behar dugu ezen etorkizuneko Kalitate Legeak esku zabaltasunez eta ahalikerik gabe bilatu eta aurkitu behar duela Espainiako lurralde osoan Haur Hezkuntza finantzatzeko konponbidea. Izan ere, egia esan, adin horretako 100eko ia 100 haur daude eskolaturik. Gurasoek aho batez onartu dituzte hezkuntzaren tarte horrek beraien seme-alabentzat ekartzen dituen abantailak, eta, argi dago sare publikoaren eta itunpekoaren arteko oreka beharrezkoa dela bi sareok kalitatezko irakaskuntzarantz aurrera etengabe egiten duen hezkuntza ahaleginen kulturari bila dezaten.

- HERRIKOA FEDERAZIOA

Hezkuntza hiritar guztion funtsezko eskubidea da, gure Konstituzioan aintzatetsia. Funtsezko eskubidean kalitateaz hitz egiteak ikaslerik gehienek hezkuntza-lorpenik handiena iristea lortzea ekartzen du eta, horretarako, haiei lorpen horiek lortzen ahal izateko beharrezko arreta eman behar ko zaie, elkarbizitza bultzatzeko giro egokian.

Bistan denez, guk, gurasoak garen aldetik, gure seme-alabek jasotzen duten hezkuntza kalitatezkoa izatea nahi dugu. Egungo Gobernuak Parlamentuari eztabaidatzeko aurkeztu dion lege-proiektua aztertutik, negargarria iruditzen zaigu egiaztatzea ezen, "Hezkuntzaren Kalitate Legea" izenburua izan arren, ez duela, gure iritziz, egungo hezkuntza-sistema hobetzeko ezinbertzeko den neurririk. HSAGOL ongien aplikatzeko ahalegin handiagoak behar dituen lege ausarta da, baina ez zen beraren asmo handizaleak lortzeko behar zen bitarteko materialik ez giza bitartekorik jarri. Hala eta guztiz ere, lege horrek

gizarte aurrerapen ukalezina ekarri du eta aurrerapen hori ez da baztertu behar; bertzela, gure gizarteak kaltea jasaten du eta hura baztertzeaz damutuko gara ziurrenik.

Egungo Lege-proiektua txarrean oinarriturik dago, eskola-porrotean, indarkerian, ezagupen-urritasunean... eta zailtasunak areagotu eta eskola-etekin gainera zeharkako argibideak eman dituen omen-galerako kanpaina luzearen ondorengoa izan da. Kanpaina horren ordez, benetan aztertu behar genituen egungo arazoak, eta gizarte eztabaida zabala sortu, hezkuntza interesatzen zitzaizen sektore guztiek parte hartuko zutena. Lege bat zehazteko prozedura hori ez da berria. Izan ere, Hezkuntzari buruzko 1970eko Lege Orokorrarekin egin zen, demokraziaurreko aldian, eta HSAGOL delakoarekin. Argitu behar denez, ez dago egun eskola-porrot handiagorik eta ez ditugu inoiz izan une honetan ditugun eskolatze-kotak. Gainera, nabarmen igo dira ikasketak ertainak eta goi ikasketak egonik dituzten biztanleen tasak.

Proiektu horrek ikasleei leporatu dizkie sistemaren oztopoen errua, eta proiektu horretako neurriak haiek aurretik esaten eta nekez itzultzen ahal diren ibilbideetako beren etekin akademikoaren arabera sailkatzeak dira. Horrela, Batxilergo eta Unibertsitate sartzeko diren ikasleak gutxiagotuko dira, Europako herririk gehienetan hartzen ari denaren kontrako politikari jarraiki. 0-3 urteko haurrak hezkuntza-sistematik ateratzeaz gain, ez da ezer aipatu geletako laguntzei ez lehenengo etapetako banakako arretari buruz. Horiek ez dute arazorik ekartzen, baina haiek falta izateak Bigarren Hezkuntzan azaleratuko diren zailtasunak sortuko ditu. Proiektu horretan ez dute azaldu ikasmaila errepikatzen duten ikasleekin hartu beharreko neurririk ere: horrelako neurriak beharrezkoak dira bertze kamusadarik gerta ez dadin. Era berean, ez dute elkarrekin bizitzeko giroa hobetzeko bitartekorik azaldu.

Gainera, proiektu horrek partaidetza eskola demokratikoaren ereduari atzera egitea dakar; izan ere, irakasleek parte txikiagoa hartuko dute eta gurasoek ez dute parterik hartuko (hori dela eta, Konstituzioaren 27. artikulua ez du betetzen hark), eta ez da ikaslerik kontutan hartuko. Ikastetxeen Eskola Kontseilua gobernu-organo bezala desgertuko da eta zuzendariak administrazioak hautatuko ditu. Ez dute kontutan hartu familien lankidetzak kalitate-faktore erabakigarria dela. Eta ezin parterik hartuko dugu, gure seme-alaben "nota" jasotzeko eskubide bakarra izanik.

Proiektu horretako konponbideak 1970eko Legeaz geroztik gaundituta dauden edo egon beharko zuten neurriak dira. Laburpen gisa esan daiteke ezen XXI. mendeko hezkuntza-sistemarentzat dituela hogeita hamar urte baino gehiagotako neurriak azaltzen ari direla.



Consejo Escolar de Navarra
Nafarroako Eskola Kontseilua

Ikasgela egun

IRUÑEKO HIJAS DE JESÚS IKASTETXEA. ANIZTASUNARI KASU EGITEKO HEZKUNTZA-PROIEKTUA EGITEA

Iruñeko Hijas de Jesús ikastetxea, herrian, Jesuitinena bezala ezaguna, gure hirian ibiltzen 40 urte-edo daraman ikastetxea da. Beti egon da Txantrea auzoan kokaturik eta auzo horretako, Orbina eta Arrotxapea auzotako eta Burlatako eta Billabako hezkuntza maila guztietako eskola-biztanleei arreta ematen die bereziki. Aspaldidanik ikastetxe mistoa da gurea, ikasmailako bi lerro eta 750 ikasle inguru dituen.


Gure hezkuntza-proiektuaren barruan azken urteetan oinarritzko elementuetariko bat aniztasunarekiko eta hezkuntza-beharrizan ugarietako arreta izan da. Hasieratik uste izan genuen ezen alderdi hori garrantzi handikoa zela eta, gainera, gure Hezkuntza Proiektuaren eta Hijas de Jesús ikastetxe honen hezteko moduaren oinarritzko elementuetako batekin bat zetorrela; biotan, beharrianak dituztenenganako arreta letra larri nabarmenduta dago. Bistan zen gure Hezkuntza Erkidegoaren barruan beharriandun horiek zeudela eta, bide horretan lan eginik ere, gureraino hurbilduko ziren ikasle gehiago jasotzen ahalko genituela eta beraiei arreta ematen ahalko genitela. Horrela hasi ginen ibiltzen.

Denboran eginiko lehenengo urratsa LHPB bat (Lanbidean Hasteko Programa Berezia) irekitzea izan zen. Beronek 8 urte daramatza ikastetxean ibiltzen, eta, gainera, oso ongi dabil. Hasieran ez genekien ziur erronka horri aurre egiteko gai izanzen ginenentz, baina laster ziur izan ginen baitz: are, egun esan dezakegu ezen gela horretatik igaro diren ikasleek poz handia eman digutela hezkuntza eta prestakuntza mailan, giza mailan bereziki baina. Egia da, halaber, ikastetxeak zorte ona izan duela gai horretako bi profesional onon dituelako: Carmen Galilea eta Socorro Alfaro. Egun, ehungintzako eta administrazioako lanbide eremuan prestatzen ari den hirugarren ikasle-promozioa dabil.

Bigarrenik, Hezkuntza Beharrian Bereziakiko Arretarako plan bat garatu zen ikaste-

txean. Profil horretako ikasleen kopurua igotzen ari zen eta ikasleoi hezkuntza-erantzuna ematea beharrezkoa eta presazkoa zen. Azken lau urteetan sistema antolatu izan da eta egungo unean amaitu dugu; orain programa horretan sarturik dauden Haur eta Lehen Hezkuntzako 16 ikasle ditugu, Cristina Asensok eta Raquel Monjasek arreta ematen dietenak, Ainhoa Navaroren eta logopeda baten lankidetzarekin. Bigarren Hezkuntzan, beharrian horiei Curriculum Berezikiko Atal (CBA) batetik egiten zaie kasu. Atal horrek egun 5 ikasle ditu eta bi urte daramatza Leyre Redinen zuzendaritzapean ibiltzen. DBHko Lehen Zikloko beharrian larrietarako arreta-bide hori oraindik lehenengo urratsak egiten dabil, oso ongi egin ere. Horrezaz gain, DBH osoan Beharrian Bereziak dituzten bertze 5 ikasleri arreta ematen zaie, Ainhoa Navarro eta Roncesvalles Orbaiceta irakasleen bitartez.

Era berean, ikastetxeak, hirugarren urtez jarraian, Curriculum Egokituko Atal (CEA) bat du DBHko Bigarren Zikloko ikasle konduktualentzat. Egun 8 ikasle joaten dira atal horretara. Kasu horretan, sare pribatutik etortzen diren ikasleak jasotzen ditugu (ikasturte honetan, esate baterako, bi Amor de Dios-etik eta bat Kaputxinoetatik etorri dira). Gelaren profilak aldianaldiko arazoak ekarri ditu, baina, oro har, esperientzia ona da. Bertze alde batetik, atal honetara joaten diren gazteok agertzen duten problematikarako erantzuna behar izaten dute eta CEA hori da une honetan ematen ahal dieguna. Ikastetxeakoi laster Curriculum Dibertsifikazioko gela bat izatea gustatuko litzaiguke, zeren eta, mota horretako ikasleentzat irtenbide bikaina izanen bailitzateke eta ikastetxeak aniztasunerako duen arreta-programa hori oso ongi osatuko bailuke. Gure aldetik, aukera hori aztertzen dihardugu, hori gure Komunitateko hezkuntza-agintaritzak eman behar du baina.



"LHPBko neska-mutilak lanean artistak dira eta oso ongi posatzen dute pintatzen."

Ikasgela egun

Azkenik, ikasle etorkinek osaturiko bertze aniztasun bat dugu. Guztiok dakigun bezala, inmigrazio mota hori oso oraintsukoa da eta handiagotuko dateke. Gure ikastetxea errealitate horretara orain sartu da eta kopurua oraindik txikia da baina bistan da handitzeko duen joera. Egun, 37 ikasle etorkin ditugu eskolatuta. Kopuru hori gure ikasleen %5 da gutxi gorabehera. Egun aztertzen gabilta nola hartzen ahal ditugun horrelako ikas-

leak, gure ikastetxera behintzat Hispanoamerikatik etortzen direnak. Dugun zailtasun nagusia jatorri-herrien (Txile, Peru, Ekuador, Kuba eta abar) askotarikotasunaren araberrako egoeren aniztarikotasuna da. Hori da egungo uneko erronka, ahalik eta erantzun onena eman behar dioguna. Kapitulu hau amaitzeko, ikastetxeak baditu ikasle ijito bakan batzuk ere, aspaldidanik normaltasunez arretaztatzen direnak.

Foroa

ELKARREKIN BIZITZEKO ARAZOAK

(Donejakuen 2001eko maiatzean eginiko XII. Estatu-topaketetako ondorioen 3. Atala. Testu osoa gure web orrialdean kontsultatzeko ahal da:

www.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra

Gobernuko organo elkartuei buruz.

Eskola Kontseilua.

Zuzendaritzako Taldeei eta Eskola Kontseiluei elkarbizitza bultzatzeko eta zehazteko behar bertze ahalmena eta lokabetasuna eman behar zaie, administrazio-prozesu askotarikoetara jotzea saihestu behar delarik.

Ikastetxeei antolakuntza eta curriculum lokabetasun handiagoa eman beharko zaie.

Ikastetxearen bertze antolakuntza-alderdi batzuk kontutan hartuko dira: ordutegiak, ikastorduetako zaintzak eta jolasorduetakoak. Izan ere, elkarrekin bizitzearen kontrako jokaerak oso gutxitan gertatzen dira eskola-orduetan eta gelen barruan.

Eskola Kontseiluek beren ikastetxeko elkarbizitzaren egoera eta haren puntu sendoak eta gatazka- eta tentsio-puntuak aztertu beharko dituzte, horri buruzko ekintza zehatzak hartzekotan.

Hezkuntza Administrazioak material egokiak prestatu beharko ditu, eta zuzendaritzako taldeak eta Orientazio Departamentuak, aipatutako azterketa-teknikekin.

Klaustroa.

Biziki garrantzizkoa da klaustro osoaren koordinazioa, edo, gutxienez, mailako irakastaldearena, irizpide berberre jarraiki jarduteko, ikasleen jaraipenari eta curriculum-koordinazioari dagokienean bereziki.

Ezinbertzekoa da irakastaldeak gelaren kudeaketa, edukiak eta metodologiak koordinatzea eta aztertzea, promozionatzeko eta ziurtatzeko irizpide orokorrak doitzeko. Aurrekoa ahalbidetzeko, honakoa da beharrezkoa ikastetxeetan orotan, Bigarren Hezkuntzakoetan bereziki:

a) Ikasle taldeen kopuru txikiaren gainean betiko gelditu barik jarduten duten irakastaldeak egoten ahal izatea.

b) Irakasleen ordutegian aldiak izatea, talde horien barruan sakontasunean koordinatu eta hausnar egiten ahal izateko.

Zuzendaritzari buruz.

Garrantzitsua da ikastetxeetako Zuzendaritzak gai honetan betetzen ahal duen funtzioa, hura gurasoen eta hezkuntza-sektore guztien arteko elkarbizitza eta elkarbizitza sustatzen duen liderra izaten ahal baita.

Zuzendaritza-taldeak elkarrekin ongi moldatzea sustatzen duten jarrerak hartu eragin eta bermatzeko konpromisoa hartu behar du, batzuetan irakasleen artean gertatzen diren bertze inhibizio-jarrerara batzuk saihestu behar dituelarik.



Santiago XII. Topakalean, 2001eko maiatzean

Eskola-erkidego osoari buruz.

Elkarbizitza kalitate-faktorea da eta asmoz eta arauz erak-
ki behar da hezkuntza-erkidegoko kideen ororen jarduke-
ten bitartez.

Ikus daitekeenez, irakasleek, gurasoek, ikasleek eta aba-
rrek osatutako talde batek elkarrekiko bizitzaren gai hone-
tan ekintzaren bat egin nahi duenean, berezko hobekun-
tza gertatzen da, jarduketa zehatza hasi baino lehen ere.
Inkesten arabera, eskola-erkidegoaren sektore guztiek oso
ontzat jo dute elkarbizitza egoera gatazkatsuak konpon-
tzeko bide bezala erabiltzea.

Irakasleentzako, familientzako, ikasleentzako eta irakasle-
ak ez diren ikastetxeetako langileentzako heziketa eta
prestakuntza-plan zabala garatu behar da, ikastetxe
bakoitzean harremanetarako edo elkarrekin bizitzeko
eredu bat ezarriarik izatearen garrantzia nabarmentzea
helburu duena.

Irakasleei buruz.

Prestakuntza zehatza.

Irakasleei hasierako prestakuntzan eta prestakuntza eten-
gabean ikastetxeetako pertsonarteko harreman askotariko-
ei buruzko alderdiak sartzeko beharrezkoa da: eragileko
teknikak, gizarte trebetasunak, gatazken konponbidea eta
partaidetza sustatzeko estrategiak.

Prestakuntza-prozesuetan irakasleengan sustatuko da
honakoa ekartzen dien berraien irakaskuntza-laneko inpli-
kazio-jarrera:

- Eskola-porrotak ikasleengan bazterketa-sentimenduak eta
erasokortasun-jarrerak sortzen dituen desmotivazio-fakto-
re garrantzitsu bezala ebaluatzea.

- Ikasleen lankidetzak sustatzen duten metodologi estrate-
giak geletan ezartzea. Horretarako, gelan lantalde hetero-
geneoak sortuko dira aniztasuna kontutan hartu eta elkar-
bizitza hobetzeko.

- Irakasteran hartu behar diren curriculum-erabakien eta
ikasleen motivazioaren eta partaidetzaren arteko loturari
buruz hausnar egitea.

Irakasleak prestatzeko lanen barruan, irakasten hasten
direnen tutoretza tratatu behar da. Hainek elkarrekin bizi-
tzeko arauak ezagutarazi behar zaizkie. Izan daitezkeen
egoera problematikoak jakinaraziko zaizkie eta beren iri-
tzi eta esperientziak ekartzeko aukera eman behar zaie.

Lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleei begira indarre-
an dauden estereotipoak gainditu behar dira, horrek haien
arteko harremanak zailtzen ahal baititu, DBHn bereziki.
Izan ere, bertan bi irakasle taldeek elkarrekin lan egin
behar dute.

Tutoretza-ekintza

Garrantzitsua da banakako eta taldekako tutoretza egitea,
irakasteko funtzioaren barruan, ikasle guztientzat eta
bakoitzarentzat, arreta bereziko neurriak behar dituzten
ikasleei arreta emateko bereziki. Beharrezkoa da ikaste-
txeak tutoretzak adjudikatzeko irizpideak ikasle horien
beharrianak kontutan harturik ezartzea.

Hiru alderdietan indartu behar da tutoretzaren eginkizuna:
lehenik, tutoretzaren "bitartekotza funtzio"ari garrantzi
handiagoa eman behar zaio; bigarrenik, tutoreari elkarbi-
zitza ukitzen duten egoeretan beraiarazteko halako ahal-
men bat eman behar zaio; eta, azkenik, tutoretza-funtzio-
rako ordu-arduraldi handiagoa ahalbidetu behar da.

Ikastetxeko Hezkuntza proiektua konpartitzen duten irakas-
taldeak prestatzeko tutoretza-ekintzaren koordinazioa
erraztu eta sustatuko du. Prestakuntza horretan, elkarbizi-

tza ahalbidetzeko tratamenduak eta ekimenak homogeneotuko dira eta beraien eraginkortasuna bultzatu.

Tutoretza lana eta interesa erraztu eta pizten duen ordutegi egokian egin behar da.

Gure ustez, hobe da, interesik eza eta nekea saihesteko, tutoretza eskola-saioaren lehenengo ez azken orduan ez jartzea.

Tutoretza-ekintza biziki garrantzizkoa da elkarrekiko bizitzaren gaian eta bertze anitzetan. Hori dela eta, funtzio hori piztu behar da Autonomia Erkidego bakoitzak behar bezala finkatzen duen eran. Tutoretzatik gehiago eta, beraz, hura konpentsatu behar da.

Gizarte-langilea eta gizarte-hezitzailea. Bitartekotza.

Eskolan edo eskolekiko konexioan lan egiten duten pertsonekin batera bertze profesional batzuk erantsi beharra dago. Izan ere, indarkeria ez da eskola-arazoa, faktore anitzen ondorioz sortzen dena baizik. Faktore horietariko batzuk eskolatik kanpokoak dira (familiak, laguntaldeak, gizarteko giroa bera eta abar). Arreta familienganaino eta inguruneraino luzatzen duten gizarte-hezitzaileak edo/eta gizarte-langileak eta osasun-arazoei kasu egiten dieten osasun-langileak (erizainak edo sendagileak) egoitea beharrezkoa izanen da.

Ikasle etorkinen presentziak eta ezaugarriek hala eskatzen dutenean, barrutiko, auzoko edo udalerriko kulturarteko artekariaren figura sortu edo garatu beharko da familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa errazteko.

Familiei buruz

Gurasoek araudi arau-emaeleak egiten eta egoera gatazkatsuak ebazten era antolatuan parte handiagoa hartzea bultzatu behar da.

Bertze ikasle batzuk eranstean badira, beraiei ikastetxean indarrean dagoen elkarbizitza-araudiaren berri jakinarazi behar zaie.

Familiak eta beraien erakundeek Eskolan parte hartu behar dute, eta, bereziki, Guraso-eskola dagoen kasuetan. Izan ere, partaidetza hori ulertze-giro hobea sortzeko lagungarria da. Hori dela eta, ildo horretatik ekintzak piztu beharko dira eta elkarrekin bizitzeko arauak, eskolaren balioak eta abarri buruz hausnar egiten ahal den guneak sortu.

Ikasleei buruz.

Ikastetxeetan sendokiro finkaturiko elkarbizitza lortzeko beharrezkoa da ikasleak hezkuntza-prozesuaren muntzat hartzea. Kontuan izan behar da ezen ikasle guztiak ezberdinak eta bakarrak direla.

Arazoak dituzten ikasleek, kasurik gehienetan, gizarte-trebetasun zehatz-zehatzak ikasi behar izaten dituzte, aldian-aldiko arrakastak ekartzen dizkietenak.

Arreta berezia jarri behar da ikasleen jokaeren gainean, garbiak izan daitezen, aitzariak eta eskola-materiala zain dituzaten eta PASEn lana errespetu handiagoz har dezaten. Ikasleek ikastetxeko bizitza orokorrean parte hartzea eta haren hezkuntza-prozesuko bereko protagonismoa bultzatu behar da, eta mailaka haien aukera eta emaitzetan erantzukide izan behar dugu.

Gero eta ikasle gehiago ikastetxeratzin dira indarrean dauden araudiek babesturik baina motibazio eta interesik gabe. Ikasle horietariko batzuk derrigorrezko eskolatzeko adin normaletatik haragokoak dira. Ikastetxeak erakunde etsaitzat hartzen dituzte, beren une horietako interesen kontrako baiteritzate.

Horrelako arazoei azpiegitura- eta antolakuntza-baldintza egokietan bakarrik egiten ahal izanen zaie aurre: instalazioak, tratu pertsonala posible egiten duten ratioak, laguntzeko irakasleak, curriculum-egokitzapenak, errehabilitazio eraginkorrak eta hezkuntzako esku-harmenten hobekuntza. Gizarte, kultur edo erlijio taldeetatik datozen ikasleek azkenean ghettoak edo talde itxiak osatzen dituzte, gehien-godun taldearekin harreman urriak dituztenak.

Ez da ikastetxe zehatz batzuetara inola bildu behar egokitzapen-arazoak eta hezkuntza-beharrian zehatzak dituen ikasle gehiegi. Izan ere, gehiegi biltzea oztopo handia izan liteke haietan elkarbizitza ona izateko. Ikastetxea aukeratzeko askatasuna, ukiturikoei aintzatetsia, guztion hezkuntzarako eskubidearekin bateratu behar da. Egin-eginean, eskubide horri kalte handia egiten ahalko litzaiok, ikastetxe batzuetan ikasle gatazkatsuen proportzio handiegi egonen balitz.

Familiaren eskubideekiko eta askatasunarekiko errespetu egokiaren barruan, era erdiratuan esleitu behar zaizkie ikastetxeak eta matrikulazioa ikasle etorkinei eta gizarte-desabantaila jasaten duten berteiei, banaketa zuzenaren irizpideekin baldin eta auzo edo herri batean herri fondoei eutsitako ikastetxe batzuk badaude.

Ikastetxe guztiek, bai publikoek bai itunpeko ikastetxe pribatuek, indarrean dagoen legeria bete behar dute eta dagokion biztanle baztertuaren ehunekoa jasot.

Personak

JUANA MARI TIRAPU

Iruñeko "Santo Tomás-Dominicas" ikastetxeko irakaslea.

"LEHENENGO ETA AZKEN KLARIONA"

Lehenengo klariona atomoarentzat izan zen. Zientzietako Batxilergoko 5. mailakoentzat estreinatu zen. Azken klariona 2002ko ekainean erabili zen probabilitate-problema baterako eta "agur"-klarion bihurtu zen.

Orain klarionik, arbelik eta IKASLERik gabe nago.

Ibaiaren ondoan zehar ostera egiten dut. Une batez gelditzen naiz. Haren melodia entzuten dut. Apal eta isil joaten da. Beraren ondoan geratzen naiz, haren ertzean. Haren uraren marmarrak arima argiz betetzen dit eta lehenengo klarionaren eta azken klarionaren artean bizi izanikako esperientzia ikustea izaten dut.

Lehenengo eskola haietako nerabeok, gogoan zaituztet. Atomoari buruzko lehenengo eskola ezin ahantzizkoa izan zen. 1963ko urrian. Ai!, eta matematika eskola haiek... egia erran, paregabeak zineten. Ikastea atsegin zenuten, zaila zena asmatzea. Lan egiten genuen eta ele egiteko denbora geneukan... bizitzari buruz ele egiteko. Ederki pasatzen genuen. Irakastea, ikasten laguntzea, amestua nuena zela iruditu zitzaidan hain zuzen ere.

Berriro begiratzen diot joaten irauten duen ibaiari, eta, nahi gabe, nire burua aupegiz betetzen da, neska ikasle nerabe anitzen izenez eta, baita, mutil nerabeenez. Bizitza agertzen da, haien bizitzak, haien borrokak, haien garai-penak, haien porrotak, haien gozamenak, haien neke-nahigabeak...

Batzuetan, harritzekoa izaten zen nola aritzen ginen eztabaidan erreakzio kimikoen edo soluziorik ez zuela ematen zuen problema baten zioz.

Era berean, harri eta zur geratzen nintzen ikasleen adimena, gaitasuna, intuizioa eta antasuna "ikusita".

Bertzetan haien arazoak, haien arimenak, entzuten nituen, haiekin bildurik. Hezteko esperientzia ona da, oso ona eta sufritzailea. Ikasleak preziatuak, estimatuak direnean, ez dago bertze alternatibarik: gozatu eta sufritzea zer ziurra da.

Ilusioz eta gauza berriak egiteko gogoz beteriko hezitzaileak ginen. Oso gustatzen zitzaigun ikastetxeko jaia, antzerkia, jaialdiak, zineforuma, txangoak, sinpatiako asteak eta erkidegoarenak, elealdiak, topaketak, gogo-ariketak, gosearen aurkako kanpainak eta abar prestatzea; NBeri ehundaka txartel bidaltzen genizkion, bakerako gerra-egunaren eskean. Bateztatuko ez dut ba! Aldi interesgarria eta ederra izan zen. Ezin ahantzizkoa. Beti hobetu nahirik, pertsonak giza eta kristau baloreetan hezi nahirik. Noski, egun iluntxo eta ilunak egon ziren. Iluntasuna eta mina.

Ikasmaita edo errebalida gaingiditzerik lortzen ez zuten neska ikasleak.

Sufritzen zuten neska ikasleak, eta baten bat hiltzen zena. Orduan, barrutik odola izozten zen eta mina seme edo alaba galtzen duten gurasoen minaren antzekoa izaten bide zen.

Ibaiaren ondoan eserita egoten naiz. Begiratzen diot, behatzen diot. Mezu berriak, klarion berriak agertzen dira nire kontzientzian. Beti hezkuntza, irakaskuntza islatu nahirik. Kultura berria, hizkuntza berria: Katalunia. Urte bizi eta gozo bakan batzuk. Ertz honetatik begiratzen dut eta nire buruari esaten diot: zorte ona izan nuen ikastetxe hartan egon nintzelako. Bertze amets batzuk, aurrera egiteko plan berriak. Han erlijioiko irakasle egin nintzen. Eztabaidatzea eta gai garrantzitsuak interesatzen zitzaizkien ikasleak eza-gutu nituen. Gela askatasunerako, bilaketarako, galderetarako, galderetarako eta abarretarako gunea zen.

Oroitzapen berezia merezi du irakasleen Klaustroak. Bizitasunez bizi izan zen hezkuntza-lana. Hausnar egiteko ordu anitz, bilaketarakoak, kalitatearekiko intereserakoak. Halaber, Gurasa Elkartea. Hori ere ezin ahantzizkoa. Gogoan ditugu esperientzia baliozkoak eta, batzuetan, mingarriak.

Eguzkia aurrera joaten da, ibaiak geldirik geratzen dela dirudi eta eklosio modukoa berriro lehertzen da. Mezu berriak.

Hezkuntza-sistemako aldaketak iragartzen dira. Laurogeiko hamarkadaren hasieran gaude. LODE ospetsua onetsi da. Gero guztiak ezagutzen dugun HSAGOL etorri da. LODE estreinatu berritan, Iruñera itzuli naiz. Nire ikastetxera. Bertara itzuli nintzenean gauza nahikoa ezagutzen nuen, bertze gauza batzuk nola aldatuak zireni!

Berriro ere klariona eskuetan. Matematika eta erlijioa. Zenbait unetan halako konplexu bat eragin zidan irakasle talde bat aurkitu nuen. Zein jantzirik ikusten nituen!

Era berean, neskak ziren ikasle urduri, begiko eta hurrekoekin topo egin nuen. Esperientzia berri eta ederrak egon ziren. Taldeekin ongi pasatu nuen bizitzaren zentzuari, Jainkoaren existentziari eta abarri buruzko galderekin.

Eta, nola ez? Sufritzeko uneak, isiltasun iluneko uneak. Egokitzen joan nintzen.

Oso laster heldu ziren Lege berriak aplikatzeko lanak. Hezkuntza-eraldaketak aplikatzeko irakasleak prestatzen lan handi-handia izan genuen. Zenbat curriculum-proiektu, programazio eta aital didaktiko! Baloreen gai osoa, tutoritzak. Uste dut ezen ezin neurtuzkoak direla ikasleak beren errealizazio pertsonalerako ongi prestatzeko egindako ahaleginak.

Ikastetxea eraldatzen joan zen: Hizkuntzen Gela, Musika Gela (San Tomas Korala), Kiroldegia, Informatika Gela, Orientazio Gela, Teknologia Gela berria, Len Hezkuntzako gela berriak sortzea eta erabilera anitz.

Personak

Bilbe hori guztia nabaritzen eta bizitzen joaten nintzen. Zehazki, proiektu eta konpromiso berrietara etorkizuneko ikuspegiz bultzatzen gintuzten zenbait pertsona zeuden.

Gehienez ikusi nuena konpromisoa izan zen, prestatzeko erantzukizuna, ahaleginak bateratzea, Irakasle Klaustro gero eta bizi eta kohesiodunerantz aurrera egitekoak. Hain hurbi-letik ikusi nuen haur eta nerabeen hezkuntzaren eta irakas-kuntzaren alde pentsatu, egitasmopetu eta berritzen zen guztia, isildu behar dut, eta esan gabe utzi, ibaiak geldo nagan. Iluntzen ari du. Itzultzean aurkitu nuen onena, ikasturtez ikas-turte hazi dena, pertsona bakoitzaren hezkuntza begiratzea da, zalantzarik gabe. Baloretako hezkuntza, ebanjelio-mezuaren oinarrituriko hezkuntza. Hor dago oinarria.

Ezin esan gabe utz dezaket askotan oso dardaratu naizela haur minusbaliatuen aurrean. Haiek onberatasunaren sortzai-leak dira. Laster goretsi nituen haiek hezten jarduten zuten irakasleak. Klarion baten eta bertzearen artean ikusi nuen one-netik zerbait gogoan dut. Hainbertzeko ardura, ahaleginak eta xera ikusi dut! Ezin ikus daitekeena ikusi dut. Maitasuna.

Ilunabarrean irakasle talde gero eta bateratu, arduratsu eta sortzailleagokoa izatearen esperientzia gizatiar eta ederra bizi izan dut. (nahikoa izanen litzateke gertaera batzuk kontatzea). Ematen diozun baina askoz gehiago ematen dizun taldea.

Halaber, gogoan dut Guraso Elkarte, eta Guraso-Eskola.

Azkenaurreko orduan oso era berezian dut gogoan azken


aldiko nire ikasle bakoitza. Zuekin lan egin dugu. Beti zuek izaten zineten berriztapenen etorkizunak. Zorioneko orduak eman dizkidazue, eta kezkatzeko orduak baina askotan harritu gintuen zuen barruko miresgarritasunak. Eskerrik anitz.

Gaua heldu eta eguzkiak sartu nahi du, ibaiko ura bere bidean bare egoten da. Eta, gaua heldu arren, isilean izan nahi ez duten alderdi asko ikusten ditut: Ikastetxeko jaiak, ospatutakoak, bizikidetzak, kultur bidaiak, Ikastetxearteko Topaketak, Gosearen aurkako Kanpainak, Elkartasun-azoka txikiak, anaitasun-egunak, kulturartekotasun-egunak, kirolaren egunak...

Erranen ez dut ba! Kalitate osoaren aldeko apustua eta horretarako egiten gabiltzan ahaleginak, lana eta prestat-kuntza. Guztiak merezi du gogoan izatea, eta, azken une honetan, ezin dezaket Zuzendaritza-taldea ahantz.

Aldi bakoitzak bere argi eta itzalak ditu. Argiak nahiago ditut, itzalak ahantziko ez ditut baina.

Gaua heldu da eta, klariona utzi baino lehen, utz iezada-zu, zoazen ibai horrek!, zoriontsua izan nintzen, sufritu nuen, ongi pasatu nuen, asmatu nuen eta nahastu nintzen hezitzaile honen kanta kantatzen. Utz iezadazu, ibai horrek, erraiten ezen SANTO TOMAS IKASTETXEA dela orain geratzen zaidan opari edo oroigarririk preziatuena, zeren eta bertan lehenengo eta azken klariona xahutu bai-nuen.



"Azken klariona", 4.DBHko ikasleak, 2002ko ekaina

Gaurkotasuna

Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako "SAN FRANCISCO" IP "TERESARRENA" bezala ezaguna den etalruñeko kale Nagusia dagoen eraikinera (antzinako Ezpeletatar Jauregia) lekuz aldatzeari buruzko 4/2002 IRIZPENA, Nafarroako Eskola Kontseiluak 2002ko maiatzaren 21ean eginiko Osoko Bilkurak onetsia.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Iradokizunak:

1. Nafarroako Kontseiluari bertze txosten bat enateko eskatu dio Foru Komunitateko Parlamentuak. Hark txosten horretan adierazi behar du "Ezpeletatar Jauregia" izeneko eraikina (antzinako "Teresar Ikastetxea") bertan "San Francisco" Haur eta Lehen Hezkuntzako IP berriro kokatzeko egokitzeko proiektu arkitektonikoak indarrean dagoen araudia betetzen duen, hau da, horrelako ikastetxeek ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera bete behar dituzten beharkizunak eta NBC-CPI 96aren arabera segurtasuneko, hustuketako, suteen kontra babesteko eta abarretako beharkizunak betetzen dituen. Hori dela eta, eskola-kontseilu hau ez da puntu honetan sartzen eta erakunde horrek azaldu zaion gaiari buruzko bere txosten juridikoan zehazten duena beteko du.

2. Eskola Kontseiluak, erakundeak araupetzaile duen azaroaren 4ko 12/1997 Legearen 7.1.i eta 2.c artikuluen babesean bere eskumenak erabiltzeko, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari "San Francisco" IPak bere egitekoa eta funtzioak bera behin betiko kokatuta geratzen den lekuan baldintza egokietan betetzen ahal izateko bere ahalgintza handiago ditzan eskatu dio. Berak eskatu duenez, ikastetxe horrek zuzkidura material, orokorrean, eta, zehazki, hezkuntzarako gune nahikoa izan behar du, egokia, duina eta segurua. Izan ere, hori eskatzen du hertsiki indarrean dagoen araudiak. Egin-eginean, horrelako zuzkidura eta guneak izan behar ditu hiriko alde historikoan finkatutako biztanleei kalitatezko hezkuntza publikoko erantzuna ematen ahal izateko.

3. Ildo horretatik, Hezkuntza Erkidegoak ikastetxeko zuzkidurak hobetzeko egiten ahal dituen eskaerak kontutan hartzeko eta berauei kasu egiteko eskatu dio, Departamentuak berak lan egiten duen aplikazio orokorreko irizpideen eta parametroen barruan.

3. Eskola Kontseiluak "San Francisco" IPko Hezkuntza Erkidegoko kideei orori eskatu die kalitatezko hezkuntzaren proiektua lortzeko ekimenak eta hobetzeko ahalgintza bateratzeko, bizikidetzaren balore demokratikoen barruan ikasleak osorik hezteko gidari eta helburu izateko, elkartasuna eta integrazioa, tolerantzia eta elkar ulertzea, partaidetza eta gizarte lanetako lankidetzak eta abar bezalako balore demokratikoen barruan alegia.

"LORENZO GOICOA II" behin-behineko izena duen HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA-

KO IKASTETXE PUBLIKOA SORTZEKO FORU DEKRETUARI BURUZKO 5/2002 IRIZPENA, Nafarroako Eskola Kontseiluak 2002ko maiatzaren 21ean eginiko Osoko Bilkurak onetsia.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Iradokizunak:

Nafarroako Eskola Kontseiluak adierazi du ezen ados dagoela Billabako "Lorenzo Goicoa" Ikastetxe Publikoko G eta A hizkuntz ereduak D eredutik bereizi dituen Dekretuarekin, eta honako iritziak azaldu:

1. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuak amankomuneko guneak zuzen banatzen direla eta banaketa hori gatazka-iturri ez dela egiaztatu behar du. Halaber, hobe da guneen egokitzapen edo/eta proiektu egokiak egiten ahal izateko planifikazioa egitea.

2. Modu berean, Foru eta Udal Administrazioek beren menpeko administrazio eta zerbitzuetako langileei begirako neurri egokiak hartu behar dituzte, bi ikastetxeak behar bezala ibiltzeko.

3. Nafarroako Eskola Kontseiluak adierazi nahi du ezen horrelako konponbideak idealak izan daitezkeela, nahiz eta kasu zehatz batzuetan errealistenak izan. Hori dela eta, amankomuneko guneak aprobetxatuz, ikastetxeen arteko lankidetzak motaren bat mantentzen saiatu behar da elkarbizitza errazteko.

TUTERAKO "ETI" BHI EZABATU ETA "ETI-1" eta "ETI-2" SORTU DITUEN FORU DEKRETUARI BURUZKO 6/2002 IRIZPENA, Nafarroako Eskola Kontseiluak 2002ko ekainaren 25ean eginiko Osoko Bilkurak onetsia.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Iradokizunak:

1) Batzorde honek denbora laburrean egin behar du "ETI-1" eta "ETI-2" ikastetxeekin loturiko irizpena. Hori dela eta, Administrazioari eskatu gura diogu Eskola Kontseiluari irizpenen bat eskatzen dionean bidezkoak diren agiriak behar bertzeko aurrerapenaz bidali ditzan.

2) Dekretuaren edukia buruz ez da iradokizun edo oharrik egin.

El Nafarroako Eskola Kontseiluak adierazi du ezen ados dagoela Hezkuntza eta Kultura Departamentuak bidali duen eta irizpen honetan aipaturik dagoen Foru Dekretuarekin.

"Nafarroako Foru Komunitatearen eta Lanerako eta Zigor-prestazioetarako Erakunde Autonomiadunaren arteko Nafarroako Foru

Pertsonak

Komunitateko Presondegiko Hezkuntzaren arloko Lankidetzaren Hitzarmenaren Proposamen"ari buruzko 7/2002 Irizpena, Nafarroako Eskola Kontseiluak 2002ko ekainaren 25ean eginiko Osoko Bilkurak onetsia.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Iradokizunak:

Nafarroako Eskola Kontseiluak adierazi du ezen ados dagoela Nafarroako Foru Komunitatearen eta Lanerako eta Zigor-prestazioetarako Erakunde Autonomiadunaren arteko Nafarroako Foru Komunitateko Presondegiko Hezkuntzaren arloko Lankidetzaren Hitzarmenaren Proposamenarekin.

"Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetan Haur eta Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloari dagokion ordutegia aldarazi duen Foru Aginduaren Proposamen"ari buruzko 8/2002 IRIZPENA, Nafarroako Eskola Kontseiluak 2002ko ekainaren 25ean eginiko Osoko Bilkurak onetsia.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Iradokizunak:

1- Nafarroako Eskola Kontseiluak ontzat jo du HEko 2. zikloan eta lehen hezkuntzan atzerriko hizkuntzak sartzea eta orokorrean ezarritakoa baino goiztiarragoa den adinean ezartzea.

2- Nafarroako Eskola Kontseiluak ontzat jo du haiek ikastetxari ematen zaion funtzionaltasuna eta komunikaziozotasuna. Izan ere, haiek curriculum-edukiak indartzeko erabiltzea aholkatu da.

3- Nafarroako Eskola Kontseiluak ontzat jo du A ereduaren euskara ikastearen hautabideak diren hezkuntza-jarduerak araupezea.

4- Nafarroako Eskola Kontseiluak ontzat jo du hizkuntzetan murgiltzeko prozesuetan lan egiten duten ikastetxeetan ingelera eta gaztelania halako autonomi maila batez sartzeko ahal izatea eta hizkuntza testuinguruak kontutan hartzea.

5- Izaera edo maila txikiagoko antolakuntza-gaiak ikastetxe bakoitzak erabakitzeko proposamena egin da. Zehazki, ekaineko eta iraileko ordubeteko eskola ikastetxeak erabakitzea proposatu da.

6- Atzerriko hizkuntzak ezartzearen hedagarritasuna dela eta, irakasleek, aipatu hizkuntzei buruzko ezagupen nahikoaz gain, indartu nahi diren arloei dagozkien ezagupenak menperatu behar dituzte, baita haien didaktika ere. Beraz, atzerriko hizkuntzetako irakasleek hobe dute dagozkien aldiko adituak izatea.

7- Nafarroako Eskola Kontseiluak Hezkuntza eta Kultura

Departamentuari irakasleak hobetzeko eta material didaktikoak egiteko plan bana egiteko eskatu nahi dio.

8- Halaber, hobe da atzerriko hizkuntzak indartzeko neurriak ezartzeari jarraitzea eta beraren ondorioak eta tutoretza-funtzioko eragina ebaluatzea. Hobe da emaitzak hezkuntza-erkidegoari jakinaraztea ere.

"Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Lanbidean Hasteko Programetako irakasleak ematen dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lantsaioa eta ordutegia araupezu dituen uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretua aldarazi duen Foru Dekretuaren Proposamen"ari buruzko 9/2002 IRIZPENA, Nafarroako Eskola Kontseiluak 2002ko ekainaren 25ean eginiko Osoko Bilkurak onetsia.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Iradokizunak:

1. Ikastetxe publikoetako irakasleen lantsaioa eta ordutegia araupezu dituen uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretua aldarazi duen Foru Dekretuaren Proposamena Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren eta Erakunde Sindikalen arteko adostasun-prozesu luzearen ondorio da. Prozesu horretan "Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza-zerbitzuaren kalitatea hobetzeko itun" garrantzitsua iritsi da, 2001eko maiatzaren 31n izenpetua.

Horrela, proposatzen den Foru Dekretuak aurreko berriz Foru Dekretubatzuen gaineko beharrezko aldarazpenak egitea du xede, aipaturiko uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretuaren gainekoak bereziki, haren edukian Administrazioaren eta Erakunde Sindikalen artean aurretik adosturiko aldarazpenak bil daitezela.

2. Proposatutako Foru Dekretuaren oinarria den legezko eta benetako ikuspegitik, eskola kontseilu honek ikastetxe publikoetako irakasleen lantsaioari eta ordutegiari dagozkien zehazteko eta ulertzeko bi aldeak ahalik aintzat hartu ditu, baita gure Komunitateko egungo kultur testuingurutik datozen gizarte eta hezkuntza beharrez berriei buruzko guztia zehazteko eta ulertzeko bi aldeak ahalik ere.

Nolanahi ere den, Eskola Kontseiluak zenbait zehaztasun egin nahi ditu:

- Proposatu den Foru Dekretuaren 1. artikuluko 5. paragrafoan aipatuta dago bere eskola-ordutegi osoa estaltzen ez duen irakaslea. Horrelakoetan, ikastetxeko zuzendariak berriz lan batzuk esleitzen ahal izango ditu. Zehaztu nahi dugunez, zuzendariak beti kontutan hartu behar izanen du irakasleari agintzen dion lan motak eskatzen duen lanbide gaikuntza, lan hori gaitasunez burutzen ahal izan dezan.

Gaurkotasuna

Hori Haur Hezkuntza lanei aplikatu behar zaie bereziki.

- Halaber, eskola kontseilu honek adierazi behar du ezen Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola-orduak apurka-apurka Bigarren Hezkuntzakoekin berdintzea nahi duela. Gure ustez, hori ona izanen da kalitatezko hezkuntza izateko, erabakigarritzat hartzen ditugun etapetan bereziki. Izan ere, etapa batzuek itzala uzten dute pertsonengan ororengan, eta beraren ondorengo garapenean eragin hutsezina dute.

"Ikastetxeetan Teknologia Berriak, Internet bitartez hezte eta amankomuneko intereseko bertze heziketa-jarduera batzuk bultzatzeko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren arteko lankidetzaren hitzarmen" ari buruzko 11/2002 IRIZPENA.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Iradokizunak:

- Nafarroako Eskola Kontseiluak ontzat jo du irakaskuntzan Teknologia Berriak bultzatzeko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren artean aurkezturiko lankidetzaren hitzarmena.

- Hala ere, beraren ustez, Hezkuntza Departamentuak programa horiek eta bertze batzuk epe luzera eta laburren zabaldu eta garatu behar ditu.

"Lurralde Lankidetzako programen markoan irakurketa sustatzeko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren arteko lankidetzaren hitzarmen" ari buruzko 12/2002 IRIZPENA.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Iradokizunak:

- Nafarroako Eskola Kontseiluak oso ontzat hartu ditu irakurketa ikasleen kultur garapenean oinarri bezala sustatzearen alde hartzen ahal diren neurri guztiak.

- Hitzarmen horrek eta bertako jarduerak egokiak dirudite eta, gainera, bertze jarduera batzuk on izan daitezkeela uste dugu, hala nola, ikastetxeetako liburutegiak fondoz zuzkitzea eta ikastetxe zehatz batzuetan sor daitezkeen norbanakoen ekimenei laguntza materiala eta giza laguntza ematea baldin eta xede berbera badute.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2002/2003 ikasturterako URTEKO LAN-PLANaren laburpena

Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2002/2003 ikasturterako helburuak eta jarduerak honako hauek dira:

- Nafarroako Eskola Kontseilua sortzeko Legean aipaturiko eskumenak betetzea eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eskatzen dituen irizpenak ematea, Nafarroako Eskola Kontseiluko kideen ororen partaidetza bermatuz.

Legezko betebeharren ildo beretik, Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko Urteko Txostena eta Eskola Kontseiluaren 2001/2002ko Memoria egin eta kaleratuko ditugu.

- Hezkuntza arloko gai garrantzitsuekin loturiko gure ekimen eta proposamenei dagokienez, "Ikastetxeen kalitatea: Estrategiak, faktoreak eta irizpideak" izenburuko irizpena egin eta eman nahi dugu, eta Gobernuak "Irakaskuntzaren Kalitate Lege" ari buruz sustatzen ari den gaurkotasan handiagoko bertze bat.

- Bertze alde batetik, Nafarroako Eskola Kontseiluaren eta hezkuntza-erkidegoaren arteko partaidetza eta komunikazioa mantendu eta sustatu behar izanen dugu. Horretarako, tokiko komunikabideetan eta hezkuntza-lanetan espezializaturiko aldizkarietan erregulariki agertzen irauten saiatuko gara eta IDEA/IDEIA hiru hilean behingo buletinaren 12, 13 eta 14 zenbakiak egin eta argitaratuko ditugu.

Modu berean, asektore guztien partaidetza sustatuko dugu, familia bereziki, Ikastetxeko Eskola Kontseiluek urtero izaten duten berriztapenari begira, sentsibilizazio-kampainak bitartez eta bozketen data bateratzen saiatuz. 2003ko udaberrian (apirilaren 5/12an) Ikastetxeko Eskola Kontseiluekiko Urteko V. Jardunaldia egingen dugu. Lanaren gaia "Irakasleak: prestakuntza, funtzioak, tutoretza" izanen da.

Azkenean, honakook argitaratu eta banatuko dira: "Ikastetxeko Eskola Kontseiluekiko Nafarroako Eskola Kontseiluaren V. Jardunaldiko txostenak", "Autonomia Erkidegoetako eta Estatuko Eskola Kontseiluen XIV. Nazio Topaketan ondorioak" eta Hezkuntza Sistemari buruzko 2001/2002 ikasturteko Txostena eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2001/2002 ikasturteko Urteko Memoria.

- Estatuko Eskola Kontseiluaren eta Autonomia Erkidegoetako gainerako Eskola Kontseiluen koordinazioari, partaidetzari eta ibileraren ezagupenari dagokionez, Salamancan egingen diren Autonomia Erkidegoetako eta Estatuko Eskola Kontseiluen XIV. Nazio Topaketetako lanetan parte hartu nahi dugu. Bertako gaia honakoa izanen da: "Inmigrazioa eta Hezkuntza". Autonomia Erkidegoetako gainerako Eskola Kontseiluekin eta Estatuko Eskola Kontseiluarekin komunikazio eta informazio-truke etengabea izanen dugu eta bertze Eskola Kontseilu batzuek egiten dituzten zenbait jardueratan parte hartu eta lankidetzan jardunen dugu.

Gaurkotatuna

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN WEB ORRIALDEA:

IDEA/IDEIA buletina

12 zenbakia.

Txosten edo Irizpenak

Eginiko Irizpenen izenburua

Tramitatzen ari diren Irizpenak

09/2002 Irizpena, Nafarroako Ikastetxe publikoetako irakasleen Lantzaia eta Ordutegia.

11/2002 Irizpena, Ikastetxeetan Teknologia Berriak bultzatzeko HKMrekin Hitzarmena.

12/2002 Irizpena, Irakurtzea sustatzeko HKMrekin Hitzarmena.

Biblioteka

Nafarroako Eskola Kontseiluaren argitalpenak.

Azken eskuraketak.

Bertze Kontseilu batzuen argitalpenak.

Jarduerak

Urteko Lan Plana, 2002-2003rako.

Batzorde Iraunkorraren laburpenak.

Kontseiluaren Osoko Bilkuren laburpenak.

Ikastetxeetako beste Kontseilu batzuekiko Eskola Kontseiluaren IV. Jardunaldia. "Familiek ikastetxeen bizitzan parte hartzea". Sarriamona irakaslearen txostena.

Autonomia Erkidegoetako eta Estatuko Eskola Kontseiluen Urteko Topaketak.

XI. Topaketak: "Aniztasunarekiko arreta. Kulturarteko eskola". (2000). Ondorioak.

XII. Topaketak: "Ikastetxeetako elkarbizitza kalitate-faktore gisa". (2001). Ondorioak.

XIII. Topaketak: "Hezitzaileak XXI. mendeko gizartean" (2002). Ondorioak.

XIII. Topaketak: Nafarroako Eskola Kontseiluak aurkeztutako txostena (2002).

Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko 2000-2001 ikasturteko txostena

1. Kapituluak: Lege-garapena.

2. Kapituluak: Hezkuntza-sistema.

3. Kapituluak: Ikasleak.

4. Kapituluak: Giza baliabideak.

5. Kapituluak: Ikastetxeak.

6. Kapituluak: Euskara Nafarroako hezkuntza-sisteman.

7. Kapituluak: Hezkuntza-administrazioa.

8. Kapituluak: Hezkuntza-urrekontuak.

Norbanakoen botoak.

Legeria eta Araudia

Nafarroako Eskola Kontseiluak araupeztaille duen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legea.

356/1998 Foru Dekretua, Nafarroako Eskola Kontseiluaren Antolakuntza eta ibilerari buruzko Erregelamendua.

Aldi baterako Batzordeak sortzea.

Kontseiluaren osaketa


Nafarroako Eskola Kontseiluaren osaketa.

Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Txostengileen osaketa

Nafarroako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra.

Batzorde Txostengileetako kideak.

ONGI ETORRI NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILURA



Nafarroako Eskola Kontseiluaren instalazioak

Informe del Sistema Educativo en Navarra, curso 2000-2001

Capítulo 1. Desarrollo legislativo.

Capítulo 2. El sistema educativo.

Capítulo 3. El alumnado.

Capítulo 4. Los recursos humanos.

Capítulo 5. Los centros.

Capítulo 6. El euskera en el sistema educativo navarro.

Capítulo 7. La administración educativa.

Capítulo 8. Los presupuestos educativos.

Votos particulares.

Legislación y Normativa

Ley Foral 12/1997, de 4 de noviembre, reguladora del

Consejo Escolar de Navarra

Decreto Foral 356/1998. Reglamento de Organización y

Funcionamiento del Consejo Escolar de Navarra

Creación de Comisiones Temporales

Composición del Consejo

Composición del Consejo Escolar de Navarra

Composición de la Comisión Permanente y

Ponencias

Comisión Permanente del Consejo Escolar de Navarra

Miembros de las Ponencias

BIENVENIDOS AL CONSEJO ESCOLAR DE NAVARRA



Instalaciones del Consejo Escolar de Navarra

De

editoriala

HEZKUNTZAREN KALITATE-LEGEA. BI IKUSMOLDE.

- CONCAPA-NAVARRA FEDERAZIOA.

CONCAPA NAVARRAK irmotasunez uste du ezen Kalitate Lege berriak gure herriko irakaskuntza hobetuko duela, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza zehazki, eta gure seme-alabentzat nahi ditugun haien giza baloreetako heziketa bereziki, haiek pertsona ikasiak eta gizaki banaka eta gizartearen askeak eta arduradunak izan daitezen.

Une hau oso garrantzitsua da eta honakook lortzeko aprobetxatu behar da: hezkuntza-sistema benetan modernotzea, sare publikoaren eta itunpekoaren arteko berdintasuna eta osagarritasuna eta, azken batean, hezkuntza arlo osoak Europako Erkidegoan eta mundu gero eta globalagoan dagoen goranzko lehiakortasunari aurre egiteko moduko kalitatezko hezkuntza lortzeko ahaleginak egitea.

Espainia segmentatzea saihesteko unea ere bada, Hezkuntza lehenengo edo bigarren mailako Autonomia Erkidegotan banatu behar ez baita. Horretarako, anbiguitasunik gabe egin behar dugu, egun, haur-hezkuntzaren doakotasunaren alde eta, etorkizunean hezkuntza osoaren alde. Hezkuntza hori espainiarrek orok askatasunez atzitzen ahal duten herri zerbitzu anitz-tzaty hartu behar dugu. Irromtasunez baztertu behar da edonolako bazterkeria, ekonomi, arraza, sexu edo erlijio zioengatikoa.

CONCAPAren iritziz, hezkuntza-erlidaketa behar beharrezkoa eta presa-presazkoa zen. Ezinbertzekoa zen zatitzeko arriskutan zegoen hezkuntza-sisteman gutxieneko edukiak finkatzea. Hori iritsi nahi zen Gutxieneko Irakaskuntzen Erlidaketa delakoaren bitartez. Izan ere,

gure hezkuntza-sistemak ez dezake gure ikasleen eskolako porrot-indize altua jasaten jarrai.

Legeak derrigorrezko hezkuntza mailak ukiturik ditu eta HSAGOL legeak barnean harturik zuen ulerkortasun-eredua berrikusi du. Promozio automatikoa desagertzea bezalako alderdiak azpimarratu nahi ditu. Hori zen HSA-GOL legearen arazo nagusietako bat. Egin-eginean, lege horrekin bat etorririk, ikasleak ikasmaitatik hiru edo lau irakasgai gaingitu gabe pasatzen ahal ziren eta, horrela, hezkuntza-sisteman zabarkeriaz lozorroiturik egoten. Eredu txarrak ziren ikasle arduradunentzat.

HSAGOL doitzeko unea heldu da, haren akatsak zuzendu eta haren alderdi batzuk indartzeko. Horretarako, Espainiako Batxilergoa indartu behar da, Europako ahal eta laburrenetakoa baita, eta, era berean, beharrezkoa da edukiak tinkotasunez ezarrita dituen Bigarren Irakaskuntza izatea. Ildo horretatik, Humanitateen Dekretua eta antzeko ekimenak ikasturte honetan bideratu beharko dira, ikastetxe publiko eta pribatuaren pedagogi, antolakuntza, akademi eta kudeaketa lokabetasunak eta bertze neurri batzuek lagunduta. Atxikitako ikastetxeetako ikasleen jarraikortasuna ezarri behar da, ikastetxearen egungo eskariaren edo eskari potentzialaren arabera "eguneratu beharra" izateko irizpidea definitu behar delarik. Ikastetxeko zuzendariaren eta maisuaren figuren agintaritza leheneratu behar da.

Oraindik ez zaio kasurik egin itunpeko ikastetxeetako eskola-plazei begirako eskariari. Eskola-atal berriak adjudikatzeko sistema bat ezarri behar da, eskariak hori eskatzen duenean, hezkuntza-administrazioen gogoaren menpean beti egon gabe.

Halaber, erlidaketak ez ditu konpandu itunpeko ikastetxeen finantzaketa arazoak. Izan ere, ekonomi-ituneko moduluak ez zaizkie finkatu. Eskola-postuaren benetako kostua kontutan hartu behar da. Arriskutan da ikastetxe anitzen ekonomi bideragarritasuna. Ikastetxeotara jotzen duten gurasoek jasaten dute haien ekonomi mentea.

Ibilbideei dagokienaz, koherente eta egoki deritzogu DBHko bigarren zikloko ikasleentzat hiru ibilbideak sortzeari, eta,

eskolara